

- IRITZIAREN LEIHOA -

TTAKUN (H)ERRENKA

Julia, Lucia, Pitxu Ho

inaziok eta Angelek desafio ederra bota didate mugaren beste aldetik alajainkoa! Baina badu aspaldi ez dudala libururik irakurri, salbu, aitor dut, *Malou Berlinen zeit bis mitternacht* (Gauerdirako denbora zoragarria). Hargatik ez naiz Euskal Herriko bideetan ibiltzetik gelditu. Ene barnealderako bidaietarik Pitxuren testamentu apokrifoarekin itzuli naiz. Sohütako ikastolako gurasoek txukunki eta iluna zetorrela, kozi-natu pastetxari naka-naka ari nintzaiolarik aditu dudana eskainiko dizuet. Ez zuberotarrez prefosta, Iparraldeko euskara, barbaro arraroa, zailegia eta kasik ulertezina bilakatua zaizuelakoan jadanik. Begira, ez naiz hain krudela, aita alaba sortu berriari ondu beharko lituzkeen olerkiak asmatzera derrigor-tua ez naizenean!

Hara bada:

3 Pitxuk uzten du euskal kulturaren merka-tu orokorrean satortuz aberasteko, Niko Etxar-ten Maule Baitako zine-gelako kontzertuaren bideo grabaketa pirata bere ondorengoei, eta gerlaroak iraungo dueno *Euskadi jator gozo eta puta huntan* abestia, ahoak eman ahala eta zinzurrak urratzeraino orroa dezaten,

3 Pitxuk uzten dio NY zigiluaz hornitu rap musikari burukoa eta Aviron Bayonnais errug-bi taldearen bandera zuri-urdina Filipe Bidarti, txapel eta ikurrina arautuekin agertzeak ez baitu gizona euskaldunago egiten, euskalduntasuna are gehiago folklorizatzen baino, eta Madonnaren *I love NY* kanta, ikasi ondoan, bihotzez txalupa dezan, gaurkoan jada jokoz kanpo bihurturiko *Gora IK* lema oihukatzeke partez.

3 Pitxuk uzten ditu Mexi-ko hirian eskuraturiko kutsa-duraren aurkako maskarak Sarrikota Peko biztanleei, etxeatarik hurbil Benafarroa-Lapurdiko zakarrak oro, edo-zein alderdiko hautetsien adostasunarekin eraikiko den zikintegi erraldoian metatuko zaizkienean erabil ditzaten ausarki, eta Dire Straits taldea-ren *Industrial disease* albuma.



ITxaro Borda

Errro

Mujika

3 Pitxuk uzten du *Txerokee*-ren ETako komando-mandoei hogei urte pasa dituen bere auto zaharra, bazoka ukaldika josta daitezen arraiki Landese-tako oihanetan, hor bederen ez dutelako min eta sarraskirik obratuko, eta John Lennon zenaren *Give peace a chance* melodia ikaragarriaren Shan-gaiko *Live* bertsioa.

3 Pitxuk uzten ditu euskara masakratzearen erruz eta sobera ardura erdare-tan zinpurtu delako bildu dituen multa guztiak Euskal Kultur Erakundeari ordain ditzan xehe-rik galdatu gabe, eta ez etsitzeko *Euskara putzu sakon eta ilun bat zen* dakarren CDA.

3 Pitxuk uzten du Korrika 15aren antola-tzaileei Karabana Handia euskal emakumea omentzeko proposamena, ohartu baita hil aitzineko egunetan, emakumeria ma(g)ma den-tsoa eta bana ezina bailitzan, emazteak globalki ohoratuko direla, gizonak aldiz izen deitura zehatzak merezi dituztelarik, eta entzutearren Maite Idirinen *Ahizpatasunaren haizea* samurra,

3 Pitxuk uzten ditu komentarioz, ideiaz, marrakiz eta poesia-umekiz hanturiko ingurazti intimoak, bizitzan nola ohean beti leku gehiegi hartu dion bere azken maitale zainartari, eta *Kd Langen Hymns Of The 49. Parallel* lana.

3 Pitxuk uzten ditu bere kexuak Euskararen Behatokiko erantzungailuan, mihi lizunak er(r)otik zinezko hizkuntza politika eraginkorra premiazkoa duela erdi haserre erantsiz, eta Etxa-mendi-ren *Ariana* balada minbera.

(...)

Inazio eta Angel, zer diozue sasi-tako sasi-tta-kun honen soinuaz? Pitxu-ren ele-askatasunak harritzen nau. Ez da aipamen sofista-literarioetan galtzen. Balia gaitzen gu ere, Pitxuren maneran estiretan pairatzen doakigun gure euskaran, batzuen egiak, besteen gezurrak eta alderantziz, zintzoki plazaratzeko plazaratzeko.

Ahamen bateko ame-nez. n